

Bertaratutako kideak:

Pablo Arriazu Amat

Hezkuntza Administrazioaren ordezkaria

Pilar López Valderrama

Ikastetxe pribatuetako irakasleen ordezkaria (FSIE-SEPNA)

Gil Sevillano González

Hezkuntza Administrazioaren ordezkaria

Santiago Álvarez Folgueras

Ikasleen Gurasoen Elkartearen Federazioen ordezkaria (HERRIKOA)

Teresa María Arriaga Iraburu

Ikastetxe pribatu itunduetako zuzendarien ordezkaria.

Antonio Bellido Pérez

Hezkuntza Administrazioaren ordezkaria

Arantxa Ruiz Vidorreta

Ikastetxe publikoetako irakasleen ordezkaria (STEE-EILAS)

Ignacio M^a Iraizoz Zubeldia

Nafarroako ikastetxe pribatuen entitate titularren ordezkaria (ANEG-FERE)

María Jesús Salanueva Uriarte

Ikastetxe pribatuetako irakasleen ordezkaria (FeSP-UGT).

Iruñean, 2023ko ekainaren 7ko 17:01ean, Nafarroako Eskola Kontseiluaren osoko bilkura edo Hezkuntzako Batzorde Nagusia bildu da Nafarroako Eskola Kontseiluaren egoitzan, Manuel Martín Iglesias jauna kontseiluburu dela, alboan adierazitako kideak bertan direla, eta Antonio Iriarte Moncayola jauna idazkari dela, honako gai-zerrenda honekin:

1. Aurreko bileraren akta berrikustea eta, hala badagokio, onestea.
2. Kontseiluburuaren informazioa.
3. 6/2023 Irizpenaren zirriborroa.
4. 7/2023 Irizpenaren zirriborroa.
5. Galde-eskeak.

Iosu Mena Sarasola

Ikastetxe publikoetako zuzendarien
ordezkaria

Ortzi Iriarte Garmendia.

Ikastetxe publikoetako irakasleen
ordezkaria (LAB)

Pedro Rascón Macías

Aitortutako ospea duen pertsona

Mikel Rodríguez Aguirreche

Enpresarien elkarteen ordezkaria.

Ezin etorria adierazi dute:

Isabel Fernández Pan

Sindikatuaren ordezkaria
(UGT)

María Teresa Módol Betriu

Ikasleen Gurasoen Elkarteen Federazioen
ordezkaria (CONCAPA)

Josu Reparaz Leiza

Nafarroako ikastetxe pribatuen entitate
titularren ordezkaria

(Nafarroako Ikastolen Elkartea)

Tomás Rodríguez Garraza

Hezkuntza Administrazioaren ordezkaria

José Jorge Lanchas Rivero

Nafarroako ikastetxe pribatuen entitate
titularren ordezkaria (ANEG-FERE).

Marta Díez Napal

Ikasleen Gurasoen Elkarteen

Federazioen ordezkaria

(SORTZEN)

Sonia Rivas Borrell

Unibertsitateen ordezkaria

(Nafarroako Unibertsitatea)

M^a Soledad Garjón López

Ikastetxe publikoetako irakasleen

ordezkaria (AFAPNA)

Mari Luz Sanz Escudero

Nafarroan desgaitasuna duten pertsonen

ordezkaria (CERMIN)

Begoña Unzué Vela

Hezkuntza Administrazioaren ordezkaria

Ez dira bertaratu:

Javier Azanza Fuentes.

Unibertsitatetik kanpoko Nafarroako
ikastetxe publikoetako ikasleen ordezkaria.

Jabi Arakama Urtiaga

Nafarroako Parlamentuaren ordezkaria

(Geroa Bai)

Esther Lacasta Pérez-Ilzarbe

Toki entitateen ordezkaria

Germán Chocarro Garbayo

Ikasleen Gurasoen Elkarten Federazioen
ordezkaria (BRITILA)

Cristina Bayona Saez

Unibertsitateen ordezkaria

(NUP)

José Paulos Vázquez jauna

Ikastetxeetako Administrazioko eta
Zerbitzuetako langileen ordezkaria

María Rodríguez Morán

Ikasleen Gurasoen Elkarten Federazioen
ordezkaria (HERRIKOA)

Mario Fabo Caleo

Toki entitateen ordezkaria

Patricia Fanlo Mateo

Nafarroako Parlamentuaren ordezkaria
(I-E)

Ainara González Rubio

Berdintasunaren alde lan egiten duten
elkarten ordezkaria

1. Aurreko bileraren akta berrikustea eta, hala badagokio, onestea.

Kontseiluburuak kideei galdetu die ea egin behar duten aurreko bileraren aktari buruzko alegaziorik edo iruzkinik.

Akta onetsi da, bertaratutako kideek baiezkoa emanda.

2. Kontseiluburuaren informazioa.

Kontseiluburuak Nafarroako Eskola Kontseiluak 2023ko apirilaren 18tik ekainaren 7ra bitartean izandako jardueraren berri eman du.

Halaber, aipatu du Estatuko eta erkidegoetako eskola kontseiluen XXIV. Topaketa eginen dela Granadan, 2023ko ekainaren 14an eta 15ean.

3. 6/2023 Irizpenaren zirriborroa.

Kontseiluburuak adierazi du lantaldeak eta batzorde iraunkorrak onetsi dutela 4. zuzenketa, eta, beraz, onesteko eskatu du.

Bertaratutako kideek aho batez onetsi dute.

Kontseiluburuak adierazi du 1., 2. eta 3. zuzenketa batera bozkatuko direla, haien edukia dela eta.

Santiago Álvarezek zuzenketa edukia defendatu du.

Gil Sevillanok eta Pablo Arriazok erantzun diote.

Hiru zuzenketa bozkatzeari ekin zaio, eta baztertu egin dira, emaitza honekin: aldeko 2 boto, aurkako 9 eta 3 abstentzio.

Kontseiluburuak adierazi du 5. eta 6. zuzenketa batera bozkatuko direla.

Santiago Álvarezek zuzenketa edukia azaldu du.

Zuzenketa bozkatzeari ekin zaio, eta baztertu egin dira, emaitza honekin: aldeko 2 boto, aurkako 12 eta 0 abstentzio.

6/2023 Irizpena bozkatzeari ekin zaio, eta onetsi egin da, emaitza honekin: aldeko 12 boto, aurkako 0 eta 2 abstentzio.

4. 7/2023 Irizpenaren zirriborroa.

Kontseiluburuak adierazi du 4. zuzenketa batzorde iraunkorrak onetsi duela, eta, beraz, Nafarroako Eskola Kontseiluaren Osoko Bilkuran onetsitza jotzea proposatu du.

Bertaratutako kideek proposamena aho batez onetsi dute.

Santiago Álvarezek adierazi du 1., 2., 3. eta 5. zuzenketak kendu dituela.

Jarraian, irizpena bozkatu da, eta emaitza hau izan da: aldeko 12 boto, aurkako 0 eta 2 abstentzio. Horrenbestez, 7/2023 Irizpena onetsi da.

4. Galde-eskeak.

Ortzi Iriartek adierazi du eskatu nahi duela berak aurkeztutako bi galderak aktan berariaz jasotzeko. Beraz, aktan jaso dira: *"1. Filosofia espezialitateko Bigarren Hezkuntzako irakasleak bere sindikatuarekin eta beste sindikatu batzuekin harremanetan jarri dira honako hau jakinarazteko: Ekainaren 21etik aurrera egingen den lanpostuen hurrengo esleipen telematikoan, lanpostu hutsak diseinatzerakoan, kontuan hartzea, oro har, Balio Etikoak irakasgaia Filosofia espezialitateko irakasleek eman behar dutela. Irakasle horiek diotenez, "irakasgai hau beste espezialitate batzuetako irakasleek eman dezakete, baldin eta astean 6 ordu baino gutxiago badira". Bere ustez, oraingo honetan abisatu badituzte, beste batzuetan hori bete ez delako izan da".*

2. *"Galdera hasieran Ikuskaritzari egin zitzaion, eta gero Gil Sevillano jaunari. Nafarroako Arartekoak Hezkuntza Departamentuari igorritako ebazpen batean, Opus Deiko bi ikastetxeek Batxilergoko ikasleen notak "puzten dituztela" salatzen da. Ebazpen horren ondoren, zer neurri hartuko ditu Departamentuak eta, zehazki, Ikuskaritza Zerbitzuak horren inguruan?"*

Gil Sevillanok adierazi du, Nafarroako Arartekoaren gomendioari dagokionez, Hezkuntza Departamentuak erantzun duela ezinezkoa dela proposatutako neurriak

betetzea, eta, nolana ere, bere ustez, arreta ez litzatekeela soilik aipatutako ikastetxeetan jarri beharko, baizik eta sistema osoa berrikusi beharko litzatekeela.

Mikel Rodríguezek adierazi du harrigarria iruditzen zaiola albistearen sona, kontuan hartuta hura oinarritzen duten datuak ez datozela bat aipatutako ikastetxeek emandako datuekin.

María Jesús Salanuevak adierazi du egun horretan bertan bilera bat egin dela Gil Sevillanorekin berandu eskolatutako ikasleei buruz eta egoera horri aurre egiteko baliabideak esleitu direla, baina sare publikoari esleitu zaizkiola, eta ez itunpeko sare pribatuari.

Gil Sevillanok erantzun du bilera sare publikoko Hezkuntzaren Kalitatearen Itunaren esparruan egin dela. Hala ere, adierazi du berandu eskolatutako ikasleen egoera konpontzeko baliabideak betiko baliabide orokorrak direla, eta salbuespenezko kasuetan soilik hartzen direla baliabide berriak.

Eta aztergai gehiagorik egon ez denez, kontseiluburuak osoko bilkurara bertaratu diren kideen parte-hartzea eskertu du, eta bilera bukatutzat eman du 17:43an, goiburuan adierazitako tokian eta egunean.

